

DESBERDINTASUNAREKIKO AHALMEN KRITIKOA ETA ALDAKETARAKO AHALMENA

BIGARREN HEZKUNTZA

SAIDAK IKASLEEKIN. JARRAIBIDEAK

Berdintasunerako hezteak berarekin dakar **zeharka lan egitea** hezkidetzan eta batera gure ikastetxean, arlo, denbora eta eremu guztietan. Dena dela:

- ▶ Egoera batzuetan, klaustroaren, ikasturteko unearren, etaparen edo taldearen arabera, zeharkako lan hau ez da egingarria izaten.
- ▶ Beste batzuetan, zeharkako moduan lan egin arren, saio zuzenagoak eta esplizituagoak behar ditugu prozesua hasteko, jarraitutasuna motibatuzeko, oso aldekoak ez diren erresistentziak eta gogobetetasun batzuk aldatzeko, gertatu izan den gorabeheraren bati aurre egiteko, inplizituki landutako gai batzuk azaltzeko denbora eta ikasleen parte hartze handiagoarekin, etab.

Arrazoi hauengatik edo antzekoengatik, hezkidetzaren zeharka landu arren, curriculumaren alderdi eta zati desberdinei eskainitako saio askotan eta eguneroko eskola jardueraren bidez, horri buruzko **saio bereziak** egin beharko ditugun uneak egonen dira. "Hezkidetzaren saioak" deitzen ahalko ditugunak.

- ▶ Zentzu honetan, berdintasunean hezteko "Hezkidetzaren saioak" ez dira aski izanen, baina bai ordea beharrezkoak.

Praktikak eta egindako esperientziak erakusten dute **edukiz eta formazko hezkidetzako saio** hauek hobeki funtzionatzen dutela jarraibide batzuk kontuan hartzen ditugunean.

UNE BATZUETAN, BI PERTSONA

Ahal den neurrian, **zenbait saiotan**, komenigarria da **bi pertsona egotea** (ahal izanez gero, emakume bat eta gizon bat, antzeko protagonismo eta eginkizunekin). Honek ondokoa ahalbidetzen du, interesekoa denean:

- ▶ **Talde txikiagoetan** lan egitea. Talde txikiagoek, neska eta mutilen komunikazio kode desberdinak kontuan izanda, nesken parte hartze handiagoa eta aberatsagoa ahalbidetzen dute.
- ▶ **Bereiztutako taldeekin**: aldi batez lan egitea, lehendabizi, neskek alde batetik eta mutilak bestetik, eta gero, neskek eta mutilak elkarrekin bateratze lana egiteko. Honek ahalbidetzen du, aurreko kasuan bezala, nesken parte hartze handiagoa eta gainera modu egokiagoan gai batzuei ekitea, bi taldeak eta horietan ematen diren rola hobeki ezagutzeko, batzuekin eta besteekin trebetasun batzuk modu berdintzailean lantzea, bateratze lan aberatsagoak eta errealagoak egitea, etab.



**Nafarroako
Gobernua**

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetzalantzen

saio espezifikoak

Saio berezi hauek aukera izan behar dute eskolan ohiko moduan lantzen ez diren gaien inguruan hitz egiteko, hausnartzeko eta islatzeko: **eguneroko bizitza eta harreman pertsonalak, bizitza eta norberaren proiektuak**. Horretarako, tonua lasaia behar du izan, pixka bat zirikatzaila, konplizitate eta enpatiarekin, alai eta irekia. . .

eguneroko bizipenak

Ez da berdintasunari buruzko eskola edo hitzaldi bat ematea. Ez da "dena esan behar" gaiaren inguruan. Aldez aurretik saio gehiago izan dira eta ondoren ere gehiago egonen dira. Beraz, ez da saio honetan "hezkidetzaren, berdintasunaren diskurtso" guztia agortu behar.

Egin beharrekoa da ikustea eguneroko gauzetan (ez hitz handietan) **nola bizi garen**, lan egiten dugun, ikasten dugun, nola ditugun harremanak, proiektuak, amets egiten dugun... berdintasunaren ikuspuntutik. Ikustea **beste modu batera bizitzen ahal garen** edo **beste modu baten bizi nahi dugun**.

bizi-hausnarketa

Gaiak sorrarazi behar ditu, mahai gainean jarriz, ikuspegi berrietatik aztertu, zalantzak sortu eta pentsaraztea, alternatibak ikusi eta gure buruari etengabe galdetzea zergatik bai eta zergatik ez. **Pentsaraztea eta galderak egitea, erantzun guztiak ematea baino**. Bizitza islatu eta birpentsatzea. Interesa piztea gure bizitza eta gure harremanak berdintasunetik eta berdintasunerako, ulertzeko, baloratzeko, alternatibak bilatzeko eta aukeratzeko.

ez leporatzea

Erruak egotzi edo sahiestea ohiko erreakzioa izaten da Bigarren Hezkuntzako saioetan, batez ere mutilen artean. **Ez da erredunik sortu behar, ez dago errudunik.** Gure abiapuntua ondokoa da: guztiok gaude berdintasunaren alde. Gutxienez teorikoki.

kontziente izan

Abiapuntu honetatik aztertzen dugu gure praktikak kontziente ote diren. Horrela jabetzen gara orain arte kontziente ez ginen gauzez, orain **begiratzen eta ikusten ikasten ari gara berdintasunetik**, generoaren azterketatik.

arduradun izan gaitezen

Une horretatik hasita, begiratzen eta ikusten ikasten dugunetik, gure ardura da aurkitutakoarekin bat jardutea. Gure eskuetan dago bide bati edo besteari ekitea. **Gure esku dago aukeratzea. Egiazki, beti aukeratzten dugu. Jabetu gaitezen horretaz**, eta nora joan nahi dugun jakinda, aukeratu dezagun. Ez dezagun inkontzienteki errepikatu aurkituko dugun berdintasun eza, sexismoa eta androzentrismoa.

positiboan

Jaso ditzagun saio batean sortzen diren **jokaera eta hitz positiboak**. Azpimarratu eta baloratu ditzagun **denon artean diskurtso bateratu bat sortzen joateko**. Eman diezaiegun hitza ikasleei. Beraiek izan daitezten hitz egin, gogorazi, iritzia eman, kontatu eta abar egiten dutenak, eta ez horrenbeste irakasleak (saioaren haria bere esku egon arren argi eta garbi).

islatu eta birpentsatu

Ez gaitezen saiatu "dena esaten", saia gaitezen ez "doktrinatzten". **Jar dezagun ispilu bat non islatuko diren genero ereduak eta rolak**. Zalantzan jarri dezagun: Ziur? Zein ondorio ditu? Beste modu batez egiten duen norbait ezagutzen duzue? Aldatzen al da? Zergatik ez? Eta beste modu batez izanen balitz? Zer gertatuko litzateke? Hobe litzateke? Norentzat? etab.

- ▶ **Behaketa** eta datuak hartzea **hobetzea**. Bi pertsona egoteak ahalbidetzen du, saioaren aldi bakoitzean txandakatuz, batak jarduera dinamizatzen duen bitartean besteak behatzea gertatzen diren elkarrekintza desberdinen eta alderdi garrantzitsuenen datuak jasotzea (kontzeptuak, erresistentziak, egoerak, aurrerapenak, aldaketak, etab.).

BEHAKETA SISTEMATIKOA

Saioa pertsona bakarrarekin edo birekin gidatzen ahal dugula alde batera utzita, garrantzitsua da behaketa eta datu-jasotze sistematiko bat egitea. Informazioa biltzea lanarekin jarraitzeko pistak eta abiapuntuak lortzeko modua da. Hori dela eta, komenigarria da alde aurretik prestatzea saioa egin ondoren beteko dugun **behaketa eta ebaluazio orria**.

- ▶ Bigarren Hezkuntzan **ikasleek aktiboki parte hartzen ahal dute behaketa horietan**; izan ere, behaketan, datuak hartzean, pertsonen elkarriketaz, galdetegietan eta abarretan oinarria duten jarduera ugari burutzen ahal dira. Gomendagarria da oso, motibazioa laguntzen baitu eta gaiarekiko konpromisoa eta inplikazioa indartzen baitu.

SAIOAREN GARAPENA

Komenigarria da **jarduera irekiak** proposatzea, neurri batean gutxienez, eta ez ibilbide guztiz lehenetsiak eta itxiak. Nahiz eta ideia bat, gidoi bat, alde aurreko garapen eta material bat eduki, hobe da horiek jardueraren garapen errealerara egokitu ahal izatea.

- ▶ Zentzu honetan, **saioarako proposatu den ibilbideari** jarraitzen saiatu behar da, baina ez da ezer gertatzen programatutako "guztia" egiten ez bada, ongi ateratzen ez dena alde batera uzten badugu, oso ongi ez doana luzatzen badugu, taldearen arabera hurrenkera aldatzen badugu, erabili ez den materiala beste aukera baterako uzten badugu...
- ▶ Saioaren **oinarrizko edukari** ekiten badiogu bere kontzeptuekin, proposatutako galderekin, etabarrekin ibilbide zehatza egiteak garrantzirik ez du.

Gidoia, jarduera, fitxa... baliabideak dira soilik. Baliabideak ondokoen gainean hausnartzeko: **neskak eta mutilak bere biziaren gaineko hausnarketa hasi dezaten**, sexismoak eta androzentrismoak haue-tako bakoitzaren gainean duen eraginaren gainean, beren proiektuen eta bizitza itxaropenaren gainean eta bere harremanen gainean (harremanak familian, lagunak eta bizitza soziala, eskola-lana, aisialdia, bikotea...).

Azkenik, **nahitaezkoa da, beti, saioa "ixtea"**. Hau da, nahiz eta materialaren zati bat beste aukera baterako utzi behar badugu ere, gaia "oso bizirik" egon arren, etab. denbora neurtu behar dugu eta mozten eta bukatzen jakin. Tarte bat gorde behar dugu bukatzeko, saioan zehar egindakoa oroitzuz, bertan landutako gaiak azpimarratuz, materiala errepasatuz, etab, lasaitasunez eta neska eta mutilen parte hartzearekin.



DATUAK BEREIZI: ESPAZIOAREN ERABILERA

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

IRAKASLEEN BEHAKETA. IKASGELA ETA
JOLASTOKIA: ELKARRERAGINAKhezkidetza **lantz**en

GELAKO GUNEA ETA ELKARRERAGINAK	% nesk.	% muti.
Lan indibiduala: neska... -z inguratua		
Lan indibiduala: mutila... -z inguratua		
Talde txikiak: neskak ...-ekin		
Talde txikiak: mutilak ...-ekin		
Talde osoa: neskak ...-ekin		
Talde osoa: mutilak ...-ekin		
Arbelean		
Lehenengo ilaran		
Ikasgelaren erdian		
Azkeneko ilaran		
Atetik hurbil		
Leihotik hurbil		
Pasiloan, ikasgelatik kanpo		
Eutsi edo indargabetzeko		

JOLASTOKIAN	nesk.	muti.
Jolastokira ez		
Jolasten dute		
Solasean daude		
Ikasi, irakurtzen dute		
Neskak ...-ekin		
Mutilak ...-ekin		
Kirol-jolasak		
Bestelako jolasak		
Erdian		
Alboetan		
Materialarekin		
Materiala gabe		
Jolas librea		
Jolas antolatua		

IRAKASLEEN BEHAKETA: ESPAZIOAK ETA ELKARRERAGINAK

- ▶ Indibidualki lan egiterakoan, nola banatzen ditugu gelan neskak eta mutilak? Lan egiterakoan, nola banatzen ditugu bikoteak? Eta talde txikitan? Eta talde handitan? Zergatik? Konnotazio berdinak dituzte espazio horiek? Esku hartze kopurua eta esku hartze mota berdina al da neskekin eta mutilekin?
- ▶ Neskak erabiltzen ditugu mutilek lan gehiago egin dezaten edo isilik eta zintzo egon daitezen? Hau ona al da neskenzat? Aitortu eta publikoki baloratzen dugu? Neskei nahi dutenekin lan egiteko aukera ematen diegu? Eta beren errendimendua hobetzen lagundu liezaieketen eta akademikoki bikainak diren kideekin lan egiteko aukera ematen diegu?
- ▶ Neskek nahiz mutilek gelako espazio guztiak erabiltzeko aukera berdinak dituzte (arbela, hormak, apalak, kortxoak, mahaien kokapena, ikasgela orokorrean...)? Zer nolako harreman mota ematen dira espazio horietan neska-mutilen artean? Zeintzuk dute protagonismo gehien? Irakasleak, zein ikasgelako zonalde-tan jartzen du arreta eta esku hartzea? Neskak gehien egoten diren horietan? Mutilak gehien egoten diren horietan? Zergatik? Mutilak bistan eta neskak "itzalpean" eta bere kasan jartzen ditugu?
- ▶ Zeintzuk hartzen dute jolastokiko erdigunea? Zeintzuk hartzen dute espazio gehien? Materialak eta instalazioak, zeintzuk erabiltzen dituzte gehiago? Zeintzuk oihukatzen dute gehien? Korri egin, jauzi, mugitu... zeintzuk egiten dute gehien? Bultza egin, zapaldu, iraindu, jo... zeintzuk egiten dute gehien? Zein ondorio ditu guzti honek? Zer egin daiteke? Ohikoak diren erabilera maskulinoen aurrean, badago bestelako erabilera baterako espazio, ekipamendu, aukera eta motibaziorik?
- ▶ Nola zaintzen dira ikasgela (mahaiak, materialak...), jolastokia eta ikastetxeko gainontzeko instalazioak? Txukuntasuna eta garbitasuna neska nahiz mutilen ardura da? Neskei eta mutilei berdina exijitzen al diegu? Erabilera desegokiarengatik gela eta gelako materialaren hondatzeari dagokionez, gure onarpen maila berdina da denentzat?



DATUAK BEREIZI: ELKARRERAGINAK

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

IRAKASLEEN BEHAKETA. ELKARRERAGINAK
ETA HIZKUNTZAREN ERABILERA

hezkidetzalantzen

IKASLEEN ELKARRERAGINAK IKASGELAN	%neskak	%mutilak
Aukeran, talde lanetan aritzeko neskek nahiago izaten dute...		
Aukeran, talde lanetan aritzeko mutilek nahiago izaten dute...		
Ikasgai eta saio formal gehienetan, partehartzea da...		
Tutoretza, bilera, eztabaida eta saio informalagoetan, partehartzea da...		
Ikasgelan gertatzen diren eten gehienak egiten dituzte...		
Nahi ez dituzten saio edo gaiak, boikoteatzen dituzte...		
Bereziki eskolakoak ez diren edo nota igotzeko diren jardueretan, partehartzen dute...		
Kalifikazioak, notak... lanen inguruko kexak eta erreklamazioak egiten dituzte...		
Ikasleen ordezkariak (delegatuak, bozemaileak...) dira...		
Ikaskideei irainak, ezizenak, "bromak"... normalean egiten dituzte...		
Elkarbizitzaren disrupzioak egiten dituzte...		
Arau eta erabaki komunak normalean ez dituzte betetzen...		
Eztabaida, elkarrizketetan... aportazio gehienak egiten dituzte...		
Eztabaida, elkarrizketetan... kalitate hobegoko aportazioak egiten dituzte...		
Eztabaida, elkarrizketetan... kalitate hobegoko aportazioak egiten dituzte...		
Eztabaidetan, mututasun, inhibizio eta partehartze ezako jarrerak dituzte...		
Oihuak, keinuak, espazioaren okupazioa, menderatze... jarrerak izaten dituzte...		
Kideak eta hauen interbentzioak gutxiesten dituzte batez ere...		
Irakasleen presentzia eta esku hartzea liskarretan eskatzen dute batez ere...		
Aurrean dagoen irakaslea eta interbentzioak ez dituzte kontuan hartzen batez ere...		

IRAKASLEEN BEHAKETA: ELKARRERAGINAK ETA HIZKUNTZAREN ERABILERA

- ▶ Saio, jarduera, klaseetan... nolakoa da nesken partehartze eta hitzegiteko estiloa? Zer gauza onak ditu neskenentzat, mutilentzat eta hezkuntza interbentzioaren garapenerako? Hobetu daitezkeen alderdiak ditu? Nola landu eta gauzatu litezkeen hobekuntza horiek? Zentzu honetan, zerbait egin beharko litzateke mutilekin?
- ▶ Eta nolakoa da mutilen estiloa? Zer gauza onak ditu mutilentzat, neskenentzat eta hezkuntza interbentzioaren garapenerako? Hobetu daitezkeen alderdiak ditu? Nola landu eta gauzatu litezkeen hobekuntza horiek? Zentzu honetan, zerbait egin beharko litzateke neskekin?
- ▶ Ikastetxean, mutilen partehartze eta hitzegiteko estiloa inposatzen da saio, jarduera, klaseetan...? Zergatik? Zein ondorio ditu guzti honek neskenentzat? Eta mutilentzat?
- ▶ Mutilen partehartze eta hitzegiteko estiloa irakasleenaren gainetik inposatzen al da? "Beren zelaian" eta "beren jokora" jolasten dugu "lan egin dezaten"? Zein ondorio ditu guzti honek?



MUNDUA. NIRE MUNDUA. FAMILIA BIZITZA



NIRE FAMILIA, ZEINEK EGITEN DU ZER

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetza **lantz**en

ARDURAK ETA ZEREGINAK ▶ Beheko koadroa osatu ondorengo hitzekin: **asko, dexente, batzutan, gutxi, ezer ez**, pertsona bakoitzak lan hori zenbatetan egiten duen kontuan hartuz.

EGUNEROKO ARDURAK ETA ZEREGINAK	ama	aita	alaba	semea
Elikadura, erosketak, sukaldea, dieta, osasuna...				
Higienea, etxea garbitzea, osasuna...				
Arropa garbitzea eta zaintzea, higienea, osasuna...				
Umeen zainketa, osasuna, higienea, dieta...				
Umeen heziketa, eskolarako laguntza...				
Atsedena, lasaitasuna, indarberritzea...				
Helduen zainketa, ezgaituen zainketa...				
Konpainia, elkarrizketa, arreta...				
Harreman familiarrak, bizilagunen artekoak, lagunak...				
Enplegua, lan ordaindua etxetik kanpo				
ALDIZKAKO ARDURAK ETA ZEREGINAK	ama	aita	alaba	semea
Bidaiak, oporrak, turismoa...				
Etxeko konponketak, kotxearenak...				
Festak, ospakizunak...				
Gaixoen zainketa, istripuren bat izan dutenena...				
Etxebizitzaren erosketa, kotxearena edo antzekoena				
Etxetresna elektrikoaren erosketa				
Bankuetan, aurrezki kutxetan... gestio ekonomikoak				
Dokumentazioa, NAN, pasaporteak, OTA...				
Argindarra, uraren... fakturen ordainketa				
Lana, aisialdia... zaletasunei begirako ikastaroak				

KOMENTATU ETA FAMILIA GUZTIEN LABURPENA EGIN EZAZUE

- ▶ Oro har, familia guztietako amek gauza bera egiten dute? Eta aitek, alabek eta semeek? Zergatik? Zein aldea dago batzuen eta besteen artean?
- ▶ Alabak amak bezala eta semeak aitak bezala egiten al du? Zergatik? Ezin du mutilak amarena egin eta alabak aitarena? Zergatik?
- ▶ Zeinek ematen du denbora gehien eguneroko zeregin eta arduretan? Eta aldizkakoetan? Zergatik?
- ▶ Zein arduratzen da gehiago eguneroko ardura eta zereginetaz urtean zehar? Zergatik? Zeinek du denbora gehien lanbidean eta aisialdian emateko? Zergatik? Bestela izan liteke? Nola?



MUNDUA. NIRE MUNDUA. FAMILIAREN AUKERAK

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

NIRE FAMILIA. ZEINEK EGIN DEZAKE ZER

hezkidetzalantzen

ASTEKO EGUTEGI FAMILIARRA

▶ Osatu asteko ordutegi familiar bat, **bi helduk (H1 eta H2)**, **eskolak** **adinean dagoen ume batek (U)** eta **jaioberri batek (J)** osatutako familia batena. Egin ezazu guztien ordutegia zeregin guztiak denen artean eta modu orekatu batean egiten direla kontuan hartuz, eta adinaren arabera ardurak maila ere kontuan hartuz (adibideei begiratu).

Osatu ordutegia gutxienez ondorengo behar familiarak kontuan hartuz:

- ▶ **Jaioberriaren zainketa** (biberoia, higieena, paseoa, jolasa, loarazi...): **56 ordu**.
- ▶ **Eskola** (eraman eta jaso, arropa, gosaria, hamaiketakoa, motxila, parkea, eskolaz kanpoko jarduerak...): **38 ordu**.
- ▶ **Etiket kanpoko lana** (lan ordaindua, unibertsitate edo eskola ikasketak...): **38 ordu**.
- ▶ **Elikadura** (dieta, menua, erosketak, sukaldea, soberakinak, fregatu, garbitu, zaborrak...): **24 ordu**.
- ▶ **Jantziak eta etxea** (higieena, garbitasuna, txukuntasuna, desinfekzioa, ongizatea, konponketak...): **20 ordu**.
- ▶ **Heziketa** (etxerako lanak, laguntza, eskolako bilerak...) eta **osasuna** (konpainia, medikua, txertoak...): **24 ordu**





O	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
00 04	H1, H2, U, J atsedena						
04 08	H2, U atsedena H1 jaioberria, atsedena						
08 12	H1, H2 lana U, J eskola					H1, U elikadura H2 etxea	
12 16	H1, H2 lana U, J eskola						
16 20	H1 atsedena H2 heziketa U heziketa						
20 24	H1 elikadura H2, U aisia J loa						

KOMENTATU EZAZUE. LABURTU. ONDORIO NAGUSIAK ATERA

- ▶ Pertsona guztien arteko antzeko zeregin eta arduren banaketa orekatua egin daiteke? Zergatik? Garrantzitsua da denbora hau emakumeentzat? Eta gizonentzat? Zergatik?
- ▶ Zeinek izango luke lo egiteko, atsedena hartzeko... ordu gehien? Zeinek gutxien? Zergatik? Garrantzitsua da denbora hau emakumeentzat? Eta gizonentzat? Zergatik?
- ▶ Garrantzitsua da larunbata eta igandeko orduak ere kontuan hartzea? Zergatik? Zeinek izango lituzke aisialdi, zaletasun, gustuko gauzetarako... ordu gehien? Zergatik? Garrantzitsua da denbora hau emakumeentzat? Eta gizonentzat? Zergatik?



MUNDUA. NIRE MUNDUA. GIZARTEA

EMAKUMEAK ETA GIZONAK.
MITOAK ETA ERREALITATEAK

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetza **l**antzen

EGIA ALA GEZURRA

► Ondorengo esaldietan emakumeen (nesken) eta gizonen (mutilen) inguruan esaten ohi diren gauzak aipatzen dira. Esan ezazu egia ala gezurra iruditzen zaizkizun, hau da, emakume eta gizonengan ematen/betetzen direla uste duzun edo ez.

EMAKUMEETAZ ESATEN DIRENAK	egia	gezu.
Makilatzea gustoko dute		
Harri bitxiak gustoko dituzte		
Bideojokoak ez dituzte gustoko		
Musika gustoko dute		
Etxean egotea gustoko dute		
Etxean lan egitea gustoko dute		
Modako arropa gustoko dute		
Neskekin hitzegitea gustoko dute		
Kirola ez dute gustoko		
Agintzea gustoko dute		
Ikastea gustoko dute		
Dantzatzea gustoko dute		
Pertsonak zaintzea gustoko dute		
Jaioberriak zaintzea gustoko dute		
Letrak gustoko dituzte		
Irakurtzea gustoko dute		
Politik jartzea gustoko dute		

GIZONETAZ ESATEN DIRENAK	egia	gezu.
Abiadura gustoko dute		
Makinak gustoko dituzte		
Artea ez dute gustoko		
Kirola gustoko dute		
Abenturak gustoko dituzte		
Etxetik kanpo lan egitea gustoko dute		
Kotxeak gustoko dituzte		
Mutilekin jolastea gustoko dute		
Elkarrizketa ez dute gustoko		
Nahi dutena egitea gustoko dute		
Dibertitzea gustoko dute		
Irabaztea gustoko dute		
Gauzak eraikitzea gustoko dute		
Mutil lagunekin ateratzea gustoko dute		
Zenbakiak gustoko dituzte		
Esperimentatzea gustoko dute		
Sasoian egotea gustoko dute		

KOMENTATU EZAZUE. ZERRENDAK LUZATU. ARBELA/KARTELEAN LABURPEN BAT EGIN

- Ezagutzen duzue neska edo mutilen inguruan esaten den esaldi gehiagorik? Idatzi itzazue, zuen zerrenda propioa egin eta eztabaidatu egia ala gezurra diren.
- Emakumei dagokienean, zeintzuk uste duzue egia direla? Eta gizoni dagokienean? Zergatik uste duzue emakumei gauza batzuk gustatzen zaizkiela eta gizoni beste batzuk?
- Gustu horiek jaiotzez etortzen dira edo ikasiak dira? Zergatik?
- Gauza horiek gustatzen ez zaizkien neska-mutilak (emakume-gizonak) ezagutzen dituzue? Nola daiteke hori? Gauza guzti horiek egia direla uste duen emakume edo gizonik ezagutzen al duzue? Nola daiteke hori?
- Gustu horiek emakume eta gizon gehienek duten bizimoduarekin, eta familia, lanbidea, lana, zaletasunen... inguruan egiten dituzten aukerekin zerikusirik dutela uste duzue?



MUNDUA. NIRE MUNDUA. LAN MUNDUA

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

EMAKUMEAK ETA GIZONAK. LANBIDEAK ETA
ENPLEGUAK


hezkidetzalantzen

DATU ERREALAK ▶ Bilatu ezazu lanbide eta lan hauek ikasi, eduki edota egiten dituzten emakume eta gizonak.

LANBIDEAK ETA ENPLEGUAK	emak.	gizo.
Delineazioa		
Arkitektura		
Elektrizitatea		
Ingeniaritza		
Automozioa		
Informatika		
Elektronika		
Fisika		
Matematika		
Heziketa fisikoa		


LANBIDEAK ETA ENPLEGUAK	emak.	gizo.
Turismoa		
Farmazia		
Hostalaritza		
Medikuntza		
Kazetaritza		
Magisteritza		
Psikologia		
Erizaintza		
Kimika		
Biologia		

HALA ETA GUZTIZ ERE... ▶



...**Anari** papera asko gustatzen zaio, ukitzea, usaintzea, izan ditzakeen erabilera ezerdinak: "paperean dena egin daiteke". Gainera, ekologiaz eta basoen kontserbazioaz arduratuta dago.

Horregatik, **paper-ingeniaria** izan nahi du.



...**Xabierrek** erizaina izan nahi du.

Txikitatik ospitalean sartuta hilabete asko eman zituen, eta erizain emakume askoren eta erizain gizonaren baten lanak ikusi eta haien zainketa jaso

zituen. Horrez geroztik, oso argi dauka: berak, erizaina.

DATUEN ZERRENDAK LUZATU. ANA ETA XABIER AHOLKATU ITZAZUE

- ▶ Zergatik uste duzue lanbide batzuetan gizon baino emakume gehiago daudela, eta beste lanbide batzuetan alderantzizkoa? Uste duzu jaiotzez zerbait dagoela emakumeek eta gizonen lan hauek aukeratzeko?
- ▶ Zergatik mediku, kazetari... gehienak lehen ziren gizonak eta orain emakumeak?
- ▶ Zer esango zenioke Anari, animatu ala gogoia kenduko zenioke? Zergatik? Zein arrazoi eta argumentuekin? Eta Xabierri? Anaren kasu bera al da? Zergatik? Bestelako antzeko kasuak ezagutzen dituzu?
- ▶ Uste duzu erreza dela neska batentzat emakume gutxi edo bat ere ikusten ez diren lanbide eta lan bat aukeratzeko? Eta mutil batentzat gizon gutxi edo bat ere ikusten ez diren bat? Zergatik? Zer egin beharko litzateke?